

ESTAMOS AQUÍ / HEMEN GAUDE

ARABAKO LANDA-INGURUNEN ERAKUNDEEN DEKALOGOA, 2019ko UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEEN AURREAN

1. Hementxe gaude, Arabako landa-ingurunean. Agenda politikoaren protagonista izan nahi dugu, orain eta urteko egun guztietan. Gizarte honi gure ekarpena egin nahi diogu, gure eskubideak eta betebeharrak zein diren jakinik.
2. Landa-ingurunean bizi garenok natura-ingurunea mantentzen eta babesten laguntzen dugu, Lurraldeko erreserba ekologikoa gara. Gizarteak gure rola aitortzen eta saritzen badu, etorkizunerako ingurumen hobea bermatuko dugu.
3. Ezagutaraz dezagun eta eman diezaiozun balioa emakumeek herrietan parte-hartzea izateari. Borroka dezagun landa-ingurunean ere genero-bazterkeriaren aurka, arreta berezia eskainiz indarkeria matxista errotik kentzeari.
4. Pertsona helduok Arabako ondare immaterialaren parte gara. Gure ohiturak eta historia zaintzen ditugu. Iragana gara, baina baita oraina ere. Zain eta balora gaitzaten nahi dugu.
5. Gara ditzagun landa-ingurunean bizilagun berrien harrera, bizikidetzeta eta gizarte-kohesioa hobetuko dituzten integratzaileentzat eta kultur arteketasunerako programak
6. Inbertitu dezagun haur, gazte eta helduentzako aisialdi eta denbora librerako espazioetan. Pareka ditzagun landa-inguruneen eta hirietako zerbitzuak: osasun-zerbitzu egonkorak, eguneko zentroak, haurtzaindegia. Abiadura Handiko Internetarako konexioa behar dugu.
7. Bila dezagun gure herri eta kontzejuen modernizazio teknologikoa. Era horretan, gure biztanleei ematen dizkiegun zerbitzu publikoen kalitatea ere hobetuko dugu.
8. EZETZ esaten diogu lurraldea zatitu eta landa-inguruneari mugikortasun alorreko ekarpenik egiten ez dion garraioari. BAIETZ esaten diogu landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen arteko eta herrien arteko garraio arina ahalbidetuko duen benetako mugikortasunari.
9. Landa-ingurunean jarduera ekonomikoen garapena sustatzen eta babesten dituzten politikak bultzatuko ditugu: gizarte hau elikatuko duen lehen sektore bat behar dugu, tokiko merkataritza bizi bat eta gure egunerokoa erraztuko duten eta, aldi berean, enplegua sortuko duten hurbileko zerbitzuak.
10. Herri biziak behar ditugu, landa-ingurunean enplegua eta ekintzailtza sustatzeko, etxebizitza-aukera eta landa-inguruneen biztanleei zerbitzu publikoak emateko neurriekin.